

➤ **Erreklamazioa egiteko prozedura**

Emaitzarekin kontrako erreklamazioa aurkez dezakezu. Horretarako, IVAPeke webgunean argitaratutako erreklamazio-orria bete beharko duzu eta honako helbidera bidali:

IVAP
Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua
Donostia-San Sebastian, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Erreklamazio-epea **uztailaren 1etik 7ra** artekoa izango da, biak barne.

IVAPeko Ebaluazio arloak erreklamazioa aztertuko du. Beraz, proba berriro zuzenduko da (hirugarren edo laugarren zuzenketa izango da, kasuaren arabera), eta berrikusketaren emaitza (Gai / Ez gai) behin betiko kalifikazioak argitaratuz jakinaraziko da.

IVAPek ez du zuzenketaren inguruan azalpen pertsonalizaturik ematen. Erakunde honek darabilen ebaluazio-mota ziurtatze-erakunde eta ziurtatze-prozedura bati dagokiona da; alegia, barne begirakoa (ebaluazio sumatiboa), eta ez kanpora begirakoa (ebaluazio formatiboa).

Erreklamazioen ondorengo behin betiko emaitzak IVAPeke webgunean eta EHAAan argitaratuko dira, **uztailaren 28an**.

Idatzizko azterketaren emaitzen kontra jarritako erreklamazioaren ondorioz, emaitza GAI bada, erreklamazioaren emaitza jakinarazi eta gutxira, ahozko azterketa IVAPeke Lakuako egoitzan egiteko deia jasoko duzu.